



TUMATXAK GAUA DONOSTIAKO DOKAN

## Telebistatik zuzenekora

%1EKO AUDIENTZIA; gutxi gorabehera 20.000 lagun. Horixe omen da ETB1eko *Tumatxak* saioa jarraitu zuen ikusle kopurua. Pozteko moduko datua irudituko zaio zenbaiti, eskasa besteren bati, baina zenbakiak zenbaki, bistakoa da Zuhaitz Gurrutxagak aurkeztutako saioak hautsak harrotu zituela: apaletan pilatutako binilo, kasete eta disko zaharrei (eta ez horren zaharrei) bederen. Azken bost hamarkadetako euskal musikak eman duenaren lagina osatu zuten, makina bat musikairen historian eta istorioetan arakatzuz, elkarriketa eta dokumentazio lan txalagarria eginda.

Agidanez, saioak eman ditu jada eman beharrekoak –oraingoz behintzat–, baina bizi-bizirik diraute oraindik berau bertsio fin bezain harrigarriekin jantzi duten musikariek: Napoka Iriaki eta Joseba Irazokik. Hori baliatuta eta aipatu bertsioak zuzenean gozatzeko aukera eskaintzeko, *Tumatxak* gaua antolatuta zuten Gurrutxagak eta enparauk pasa den abenduaren 26an, Donostiako Kafe Antzokian.

Tamalez, bertaratu ginenok saioko bertsioen erdiak entzun ahal izan genituen soilik. Joseba Irazokik ez zuen kontzertua eskaintzerik izan, amigdalitis gogor batek jota. Bizi-bizirik dauden

eztarrak ere erasotzen ditu neguak nonbait. Lastima. Ederra zatekeen *Txoria txori*, *Eperrak* edota *Sarri Sarri* interpretatzen ikustea, izerditan blai eta zuzenekoetan ohiko duen grinaz.

Baina kalte orok du bere alde ona. Beratarren falta gehiegi ez sumatzeko, ikusleoi garagardo bana oparitu ziguten, eta Zuhaitz Gurrutxagak hartu zuen bizpahiru abestirekin tartekatutako bakarrizketa medio DOKA girotzeko ardurara. *Futbolisto baten konfidentziak* bakarrizketan ohi duenez, autoironiaren bidetik jo zuen, bere buruari burla egin eta (balizko) gabeziatik etekina ateratzen badakiela frogatuz. Ez da bertute makala. Hasieran apur bat hotz nabaritu banuen ere, saioaren lantaldeari eta grabazioetan sortutako arazoei egindako erreferentziek irria aterazidaten. Gitarra hartu eta *Tumatxak* protagonista izan diren zenbait abesti ere eskaini zituen, duinki; ezin gehiago eskatu.

Miren Narbaiza eta Ander Mujika elgoibartarren txanda izan zen gero, Napoka Iriarena. Ausardiaz hartu dute bertsioak egiteko ardura, eta lan handia antzematen da abesti bakoitzaren atzean. Arratsalde honetan, *Aitormena* edota *Emostazu muxutsueten* gisako kantuen errotik

abiatuta urrunera egin duten bidaia jarri ziguten parez pare. Doinu ezti eta erritmo geldoak ahots ilunak eta punteatze indartsuekin ezkontzea lortzen dute. Zaila da ulertzen entzun gabe, baina barruraino helitzen dira. Loa loa abestiaren moldaketa izan zen iluntasun hunkigarri horren adibide behinena. *Izarren bantsa* abestiaren hainbatgarren bertsioak ere aipamen berezia merezi du.

Arnasten ikasteko berriz –bikaina, bidenabar– diskoko abestiez osatu zuten setlista. Tartean, *Kontra* abestia ere jo zuten, gainontzekoak baino indartsuagoa delako nabarmentzen dena. Grabazioan eta zenbait kontzertutan lagun izan dituzten Felix Buff eta Iban Urizarrekin are ederragoa da, baina ohiko bikote formatuan ere abesti bakoitzari zukua ateratzeko gai dira. Urte batzuk barru inork *Tumatxak* gisako saio bat egiten badu, Napoka Iriari tarte egin beharko dio, ezinbestean.

Hala bedi. Etor daitezela horrelako telebista saio gehiago, baita horrelako gau gehiago ere, baina ahal dela, hurrengo izan dadila Irazokirekin. ■

**Lander Arretxea  
Bereziartua**

